



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO EKAINAREN 30EAN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

**Ez dira bertaratu:** Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/06/09KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek 2020ko ekainaren 9ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- AGINAGAKO ERRIBERAKO KALEA 1A ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0439

Aginagako ERRIBERAKO KALEA 1 A JABEKIDEEN ELKARTEAREN (H-75167460) ordezkartzan diharduen MIREN MAIOZ ERREKONDO andereak, Aginagako Erriberako kalea 1A etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

**AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 27an, zera erabaki zuen: Aginagako ERRIBERAKO KALEA 1 A JABEKIDEEN ELKARTEAREN (H-75167460) ordezkartzan diharduen OSCAR GARCÍA LAVÍN jaunari, Aginagako Erriberako kalea 1A etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 60.058,09 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>Guztira: 59.403,56 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 233,74 €
	Fidantza (%120): 280,48 €



Usurbilgo Udala

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, Aginagako ERRIBERAKO KALEA 1 A JABEKIDEEN ELKARTEAREN (H-75167460) ordezkartzan diharduen MIREN MAIOZ ERREKONDO andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako DSCak eta amaiera txostena aurkeztu dira.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Aginagako Erriberako kalea 1A etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2018ko uztailaren 17an ezarritako 280,48 €-tako fidantza (IE 8-2018) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: 2095 5069 00 9116797762.

**HIRUGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaitzari, zergen kitapena egin dezan.

### **3.- SANTUENEA 36 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0302

PEDRO MARI ALCAIN ECHENIQUE jaunak, Santuenea 36 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

### AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko urriaren 17an, zera erabaki zuen: PEDRO MARI ALCAIN ECHENIQUE jaunari, Santuenea 36 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

### **OBRAREN EZAUGARRIAK**

Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 26.293,96 €
-----------------------------------	----------------------



Usurbilgo Udala

<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>Guztira: 26.293,96</b>
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 200,16 €
	Fidantza (%120): 240,19 €

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, PEDRO MARI ALCAIN ECHENIQUE jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Ebiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Santuenea 36 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2019ko azaroaren 7an ezarritako 240,19 €-tako fidantza (IE 38-2018) itzultzeko agintzea kontuhartzaileari honako kontu zenbakian: 2095 5069 08 1060867933.

**HIRUGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

### **4.- KALEZAR 46AN ERAIKITAKO ETXEARI (EGUZKI-LORE) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0452

EVA MARIA UGARTEMENDIA GORRITI andereak, Kalezar 46an eraikitako etxearen (Eguzki-lore) lehen erabilera baimena eskatu du.

### AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko irailaren 18an, zera erabaki zuen: EVA MARIA



Usurbilgo Udala

UGARTEMENDIA GORRITI andereari eta XABIER ECENARRO BALDA jaunari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.22 Exekuzio Unitateko etxea ordezkatzeko udal baimena ematea.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	161.380,00 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>161.380,00 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.035,80 €
	Fidantza (%120): 1.242,96 €.
Urbanizazio kargengatik Udalar eman beharreko konpentsazio ekonomikoa	2.680,20 €

#### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, EVA MARIA UGARTEMENDIA GORRITI andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, Kalezar 46an eraikitako etxearen (Eguzki-lore) lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako DSCak eta amaiera txostena aurkeztu dira.

#### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Kalezar 46an eraikitako etxeari (Eguzki-lore) lehen erabilera baimena ematea honako baldintzarekin: hilabeteko epean jabego erregistroan lagapenaren inskribapena egingo da. Hala, epe horren barruan inskribapena egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da Udalean lehen erabilera baimena baliozkoa izan dadin.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2017ko irailaren 29an ezarritako 1.242,96 €-tako fidantza (IE 35-2017) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES38 3008 0259 1733 9427 6228.

**HIRUGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaitzari, zergen kitapena egin dezan.



Usurbilgo Udala

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:50etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**